

Bero-beroan

David Crystalen artikulua “Hizkunea”n

HIZKUNTZALARI galestar ospetsuak *Hizkuntza, hizkuntzak eta Internet* izeneko artikulua luzea idatzi du soziolinguistikaz ari den *Hizkunea* webgunean. Hizkuntzaren alorrean iraultzak gutxi izaten direla adierazi du Crystalek, baina orain horietako bat bizitzen ari garela dio, alegia Internet garaia. Hitzaren bidezko komunikazioan Interneten garatzen ari diren aukerez ari da, hizkuntzek orokorrean dituzten aukerez, eta gure moduko hizkuntza gutxiagotuek duten tokiaz. Ez da ezkorra, artikulua horrela bukatu baitu: “Sareak ongi-etorria emango dio mundu osoko hizkuntza-aniztasunari”. Artikulua www.euskara.euskadi.net-en.

Knörren hutsunea betetzeko hautagaiak

ENRIKE KNÖRR euskaltzainak utzitako hutsunea betetzeko hautagaiak bi dira: Blanca Urgell eta Patxi Uribarren. Lehena Patxi Goenaga, Joseba Lakarra eta Lourdes Oñederra euskaltzainek aurkeztu dute eta bigarrena Jose Luis Lizundia, Andoni Sagarna, Sagrario Aleman eta Jean-Louis Davantek. Irailko osoko batzarrean aukeratuko dute euskaltzain berria baldin eta gehiago osoa lortzen badu bietako batek.

Euskara kultur ondare Frantzia

NICOLAS SARKOZY Frantziako presidentek aurkeztutako Konstituzioaren erreforma boto bakarreko alde-

rekin onartu du Kongresuak. Erreforma hainbat gairi eragiten dio, tartean hizkuntza gutxituen auziari. Hala, hizkuntza horiek Frantziako kultur ondare direla jasoko du Konstituzioaren 75. artikulua. Horrek ez du esan nahi euskara eta gainerako hizkuntzak ofizialak izango direnik, baina Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Paxkal Indo Seaskako presidentek aurrerapauso esanguratsua dela azpimarratu dute. Maiatzean Parlamentuak Konstituzioaren 1. artikulua aldatzea onartu zuen ondoko esaldia gehitu amoz: “Eskualde hizkuntzak Nazioaren ondare dira”. Senatuak ezetz esan zion horri.

Espanian euskara ikasteko aukera UNEDen eskutik

UNEDEN eta Eusko Jaurlaritzak adostutako akordioaren ondorioz hurrengo ikasturteetik aurrera Espainiako Estatuko edozein zentrotan euskara eta euskal kultura ikasteko aukera izango da. Programa duela urte batzuk jarri zuten abian Amerikako eta Europako zenbait unibertsitatetan. Guztira, egun, 13 herrialdeko 25 unibertsitatek ematen dute aukera hori.

BAHEA

[Eusko Jaurlaritzak administrazioa eskalduntzeko prestatutako planaz](#)
[Tiraka blogean bertako kideek esanak](#):
“IV. Plangintzaldiak aldaketa nabarmenak dakartza, baina garrantzitsuenak gure ustez sakoneko filosofian dakarren aldaketa da: Jaurlaritzak euskararen ezagutza bultzatetik batez ere, euskararen erabilera bultzatzeko jautzia egiten du plangintzaldi berri honetan eta behingoan jabetu da euskararen erabilera dela etorkizunaren giltzarri. Administrazioak jarrera aktibo hartuko du euskararen erabilera sustatzeko lanean; hizkuntza ofiziala erabiltzeko irizpide argiak emango ditu; lehenasuna emango zaio sortze-lanari, gaitasuna duen orok bere lana euskaraz ere egiteari (...)”.

TALAIAN

Bitartekarien aurkako eraso

Euskal nekazari, abeltzain eta arrantzaleen sektorea egoera tamalgarriaz kexatzen ari da; salmentan aldaketa nabarmena gertatzen ez bada behintzat, sektorea amaierara kondenatua egongo baita. Landan eta itsasolan egin eta produktuak merkatuan saltzen diren arte, kasurik onenean zazpi aldiz gehiago ordaintzen da. Negozioa egiten dutenak bitartekariak eta banatzaile kateak dira eta galtzaileak laborariak eta kontsumitzaileak. Egoera hori errotoaldatu behar da. Bide horretan, kontsumitzaileak eta ekoizleak onuradun izango diren bi ekimen oso interesgarri egin dira Euskal Herrian azken asteotan. Ekimen horiek bitartekariak dagokien lekuan jarriko dituzte, azken finean horiek baitira prezioen igoeren arduradun nagusiak.

Abeltzain eta nekazari sektoreak, EHNeren eskutik eta kontsumitzaileen elkarrean lankidetzarekin, prezioen Behatokia sortzea eskatu du, jatorrian eta helmugan ordaintzen dena aztertzeko. Produktuaren prezioaren garpena aztertu ahal izango da nekazaritza ustiapenetik irten eta merkatura iritsi arte. Bide horretan, hiriburuetan “merkatu gardenak” izenekoak martxan jartzen ari dira, produktuaren ekoizpen kostuz, ekoizleei ordaintzen dietenaz eta kontsumitzaileek ordaindu beharko luketenez informatzeko.

Esate baterako, Hondarribiko arrantzaleek Irungo La Bacaladera enpresa euren hegaluze, atun eta berdelak komertzializatzea erabaki dute. Bitartekarien aurkako eraso zuzena egin dute hortaz, euren sektorea salbatzeko eta kontsumitzaileei mesede egiteko. Balio beza besteentzat.

Juan Mari Arregi